

## 81. EUSKAL SOZIOMETROA (2023ko abendua) Prensa oharra

### SARRERA

81. Euskal Soziometroa 2023ko hirugarrena eta azkena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak. Landa lana 2023ko azaroaren 21etik 24ra bitartean egin zen. Landa-lanaren % 97,6a hurrengo hauteskundeetan Iñigo Urkullu EAJren hautagaia ez zela izango jakin aurretik egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Egoeraren eta zerbitzu publikoen balorazio positiboa

Euskal herritarrek modu positiboan baloratzen dute Euskadiko **egoera politikoa**; % 66k uste dute ona edo oso ona dela; 2021 geroztik egonkor mantentzen da portzentajea. Espainiako egoera politikoaren balorazioak txarra edo oso txarra izaten jarraitzen du ( % 68).

**Egoera ekonomikoaren** balorazioa ere positiboa da, eta % 73k uste dute Euskadin ona edo oso ona dela, aldiz, Espainiako egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela uste dute % 59k. Euskadiko egoera ekonomikoari buruzko balorazioa Europar Batasuneko positiboenetakoa da. Danimarka, Luxenburgoko eta Herbehereetako herritarrek bakarrik baloratzen dute beren herrialdearen egoera ekonomikoa Euskadikoek baino hobeto.

**Egoera ekonomiko pertsonalaren** balorazioa ere positiboa da Euskadiko herritarren artean; eta, % 74k uste du bere egoera ona edo oso ona dela. Balorazio hori Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoa baino positiboagoa da ere ( % 70).

Euskadiko **arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehen kezka lan-merkatuarekin lotutako arazoak dira berriz ere, maiatzeko neurketarekin alderatuta garrantzia nabarmen galdu badute ere. Biztanleriaren % 47k aipatu dute hiru arazo nagusien artean, maiatzean, berriz, % 56k aipatu zuten.

Aurrekotik alde handiz, osasungintza da gehien aipatzen den bigarren arazoa, biztanleriaren % 28k aipatua. Atzetik datoz, etxebizitzarekin lotutako arazoak ( % 19) eta arazo ekonomikoak ( % 17), azken bi hauek maiatzean baino portzentaje txikiagoarekin.

Kopuru apalagotan aipatutako beste arazo batzuk honako hauek dira: egoera politikoa eta politikariak ( % 15), delinkuentzia eta segurtasunik eza ( % 13), eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura, eta laguntzak ( % 10).

Herritarren % 73k uste du Euskadiko **zerbitzu publikoak** nahiko edo oso onak direla, eta % 23k, berriz, nahiko edo oso txarrak direla. Zerbitzu publikoen balorazioari dagokionez Euskadik leku nabarmena du Europan, eta Luxenburgoko eta Herbehereetako herritarrek soilik erakusten dute euskal herritarrek baino iritzi hobea beren herrialdeko zerbitzu publikoei buruz.

Azken urteotan **Eusko Jaurlaritzak** hainbat arlotan izan duen **jardunari** buruz galdetuta, euskal herritarrek iritzi positiboagoa dute turismoaren ( % 72k uste du ona izan dela), kulturaren ( % 64), memoriaren, bakearen eta bizikidetzaren ( % 53) eta euskararen ( % 53) arloetan egindako lanaren inguruan. Iritziak banatuago daude gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ( % 49), ingurumenaren ( % 49), gizarte ongizatearen ( % 47), herrilanen eta azpiegituren ( % 46), ekonomiaren ( % 44), herritarren segurtasunaren ( % 44) eta hezkuntzaren ( % 43) arloetako jardunari dagokienez. Herritarren jarrera ez da hain positiboa osasungintzaren ( % 33), enpleguaren ( % 29), justiziaren ( % 28) eta etxebizitzaren ( % 20) arloetan egindako lanari dagokionez.

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Egonkortasuna jarrera, balorazio eta balio politikoetan

Biztanle gehienek **politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez** dute oraindik ere ( % 59), 2010etik interesak goranzko joera erakusten badu ere; momentu hartan % 20k agertzen zuten interes handia edo nahikoa, eta portzentaje hori handitzen joan da egungo % 41eraino.

**Begikotasun politikoei** dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 2023an 5,2 puntuko batezbestekoa baitu 0tik 10erako eskalan, bildumako altuena. Ondoren daude, PSE-EE (4,4), EHBildu (4,2), Elkarrekin Podemos (3,7), Ciudadanos (2,0), PP (1,9), eta, azkenik, Vox (0,7).

**Buruzagi politikoei** dagokienez, Iñigo Urkullu Lehendakaria da 2023an batezbesteko baloraziorik altuena jaso duena, 5,6 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Nerea Kortajarena ere ontzat eman dute herritarrek, 5,1 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,9), Eneko Andueza (4,5), Amaia Martinez (3,2), eta, azkenik, Javier de Andrés (2,9).

Herritarren % 43 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” **sentitzen dira**, % 40 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 9 “espainiar euskal herritar baino gehiago” edo “bakarrik espainiar”.

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 22 **independentziaren** alde daude, % 33 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 37 aurka daude.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm\%$  1,8koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2023ko azaroren 21etik 24ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 7a